



BIZIPOZA

2022
urteko
memoria

AURKIBIDEA

01. Hitzaurrea	3
02. Bizipozen funtzioa: izaera, misioa eta bisioa	3
03. Bizipozen helburu nagusiak	4
04. Bizipoza-ko elkarteak, bazkideak, babesleak eta boluntario sarea	4
Elkarteak	4
Bazkideak	6
Babesleak	7
Boluntarioak	8
Denbora eskaintzen duten boluntarioen sarea	8
Ekarpen ekonomikoa egiten duten boluntarioen sarea	8
Bizipozen webgunean informazioa:	8
05. Bizipozen egitasmo ildoak eta 2022 urtean aurrera eramandako ekimenak	9
1. Elkarleen eta haiek lantzen duten errealitatea gizarteratzeko ekimenak	9
01. Jarduerak	9
Mundu berri bat guztiontzat 2 kantu eta bideoak proiektuaren zabalpena	9
2022 Urtea. Proiektuaren zabalpena	12
Proiektuaren aurkezpen ekitaldia	12
Sare sozialetan eta webgunean zabalpena	12
Komunikabideetan zabalpena	12
Cd-dvd-liburuxkaren salmenta	13
Aurkezpen ekitaldia derion gure señeak elkarteak antolatuta	13
Bizipozen webgunean informazioa:	14
Mundu berri bat guztiontzat 3 kantu eta bideoak proiektuaren sorkuntza	14
Proiektuaren informazioa	14
Partehartzaileak: elkarteak, euskal sortzaileak eta babesleak	14
Irrien lagunak-ek irria aldizkaria-an sortutako ipuinak	15
Laboral kutxaren egutegia	16
Durango azoka	16
02. Gizarte eragile desberdinekin elkarlana	17
2022 Urteko korrika-n parte hartu dugu	17
Lankik antolatutako "kooperatibak eta gizarte eraldaketa" moduluan parte hartu dugu	17
Ccise kongresuan parte hartu du peio manterolak	18
Euskalgintzaren kontseilua. "Batuz aldatu" hizkuntza-politikan eragiteko adostasun sozialen ekimena	18
Reperkusion feminista batukada bilbon	18
02. Elkarleen arteko ezagutza eta kohesioa	19
VI. Jardunaldia: zaintza sistema publiko-komunitarioaz. Elkarrekin hausnartzen, partekatzen eta eraldatzen.	19
Jardunaldia komunikabideetan	21
Bizipozen webgunean informazioa eta bideoak	21
"Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da" liburuen aurkezpena	22
Liburuen aurkezpena komunikabideetan	23
03. Komunikazio orokorra	24
Webgunea	24
Sare sozialak	24
Komunikabideak	24
04. Boluntario sarea indartzeko ekimenak	25
Urretxindorra ikastolan saioa	25
Deustuko unibertsitatean saioa	25
Huizei -ko gazteekin saioa	26
Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario kanpaina eta boluntariotza km0	26
Sare sozialen bidez aurrera eramandako kanpaina	26
Tokian tokiko boluntariotza: bizipoza km0	26
Bizipozen webgunean informazioa	27
05. Bilboko egoitza eta "bizipoza eskola" gida didaktikoen proiektua	27
Bilboko pisua	27
Azaroan bizipoza jaia uribarri auzoan	28
"Bizipoza eskola" gida didaktikoak	28

01. HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, Bizipoza Elkarteak 2022 urtean aurrera eramandako ekimenen berri ematea du helburu. Egitasmo hauek aurrera eramatea, denon arteko elkarlanak eta zuen laguntzak egin du posible. Guztion arteko elkarlan honen ondorio da Bizipoza aurrera eramaten ari den ibilbidea. **Guzti honegatik beraz, mila esker bihotz-bihotzez, Bizipoza elkartearen izenean.**

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- › Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa
- › Bizipozaren helburu nagusiak
- › Bizipozako elkarteak, bazkideak, babesleak eta boluntario sarea.
- › Bizipozaren egitasmo ildoak eta 2022 urtean aurrera eramandako ekimenak

02. BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- › Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte, haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.
- › Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.
- › Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:

<https://bizipoza.eus/nor-gara/>

03. BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- › Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.
- › Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- › Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuaz.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:

<https://bizipoza.eus/nor-gara/>

04. BIZIPOZA-KO ELKARTEAK, BAZKIDEAK, BABESLEAK ETA BOLUNTARIO SAREA.

ELKARTEAK

Ondokoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako elkarteak:

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 36 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, hainbat eskubide bete gabe eta behar bereziak dituzten haur eta familiek osatutako elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu dutenak.

Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarteen arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarteen lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 36 elkarteak:

- › **ADEMGI:** Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea
- › **IÑURRI:** Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazioa, formazioa eta akonpainamendua eskaintzen duen elkarte bat da Iñurri. Gaixotasunaren ikuspuntu zabalago bat eskaintzen du, gaia sozialki normalizatzeko eta minbiziaren inguruko mito eta tabuak desagerrarazteko.
- › **AGIPASE:** Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.
- › **AMPGYL:** Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.
- › **ARNASA:** Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea
- › **ASPANIF** guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.

- › **ASPANOZI:** Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.
- › **BANAIZ BAGARA:** Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- › **BEROA:** Gipuzkoako harrera familien elkarte.
- › **BIHOTZEZ:** Kardiopatiadun haurren familien Elkarte.
- › **BIAK BAT:** Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.
- › **CHERNOBILEN LAGUNAK:** Ukraniako Dovorria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- › **NAIZEN:** Naizen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adintxikiko transexualen familiak osatzen duten elkarte da.
- › **DRAVET:** Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- › **ETIOPIA UTOPIA:** Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- › **FSDPV:** Euskadin down sindromea duten familien elkarte.
- › **GEHITU:** LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.
- › **GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA:** Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.
- › **OPORRAK BAKEAN:** Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarte.
- › **GURE NAHIA:** Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarte.
- › **GURE SEÑEAK:** Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarte.
- › **HIRU HAMABI:** Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarte
- › **JUNEREN HEGOAK:** Beharra duten beste hurrei laguntzeko sortutako elkarte.
- › **KALE DOR KAYIKO:** Ijito Kultur Elkarte.
- › **PAUSOKA ELKARTEA:** Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.
- › **SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA:** ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- › **UME ALAIA:** Adopzio Familien Elkarte.
- › **ULERTUZ:** Kardiopatiadun haurren familien Elkarte.29.- ASPANOVAS : ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.
- › **SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA:** Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko laguntzea da.
- › **MINDARA ELKARTEA:** MINDARAK jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarte). Elkarteak sortze-helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jardura osasungarri bidez.

- › **SUPER HACHE ELKARTEA:** Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkarte.
- › **GUZTIOAK:** Beharrian bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.
- › **NDANK-NDANK:** Elkarte mistoa da, pertsona senegaldar eta euskaldunetz osatuta. Helburu bikoitzarekin sortu zen elkarte, kulturartekotasuna sustatzeko batetik, eta bestetik, Senegalen garapenerako lankidetzak bultzatzeko.
- › **NUALA ELKARTEA:** Aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsona eta lagunak dira, irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu zutenak. Beraien helburua pertsona horien ikuspena eta ongizatea bermatzea da. Inklusioa aktiboki promozionatu nahi dute gizartearen. Beraien seme-alaben gaitasunetan sisten dute eta gizartearekin partekatu nahi dituzte. Elgoibar eta inguruko herrietan aritzen dira gehienbat lanean.
- › **MAREA URDINA:** Aniztasun Funtzionala duten pertsonen inklusioa helburu duen elkarte.

BAZKIDEAK

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako bazkideak:

Elkarteko kide dira, urtean kuota bat ordaintzen dute oinarritzko beharrei erantzuteko, eta haien esku dago, gainerakoak entzunda, elkartearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera dute Bizipozarekin kolaboratzen duten elkarteek eta edozein eratako gizarte eragileek.

Gizarte eragileen betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea dute. Urteko kuotarekin batera, aukeran dute bestelako ekarpen ekonomikoak egiteko aukera.

Bizipozako elkartearen kasuan, hala nahi duten guztiak bazkide izateko aukera dute, eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkide:

- › Irrien Lagunak
- › Katxiporreta
- › Elkar
- › Hik Hasi
- › Ikastolen Elkarte
- › AEK
- › HUHEZI unibertsitatea
- › Algaraklown
- › Naizen elkarte.
- › Aspanif elkarte
- › Dravet elkarte
- › Euskal Herriko Down Syndrome Federazioa
- › Gehitu elkarte
- › Gure Senñ eak elkarte

- › Kale Dor Kayiko elkarte
- › Pausoka elkarte
- › Bihotzez elkarte
- › Aspanovas elkarte
- › Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa
- › Aspanogi elkarte.
- › Super Hache elkarte
- › Ndank Ndank
- › Marea Urdina
- › Agipase elkarte
- › Iñurri elkarte

BABESLEAK

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako babesleak:

Bakoitzaren neurriko ekarpen ekonomikoa egiten diote proiektu osoari edo Bizipozarekin batera proiektu zehatz bat elkarlanean aurrera eramaten duten eragileak edo norbanakoak.

Norbanako babesleekin batera, ondorengoak dira gaur egun Bizipoza elkartearen babesle eragileak:

- › Danobatgroup
- › Orona
- › Irizar
- › Fagor
- › Laboral Kutxa
- › BBK Fundazioa
- › Kutxa Fundazioa
- › Gipuzkoako Foru Aldundia
- › Maier
- › Eusko Jaurlaritza
- › Mondragon Lingua
- › Ekonomisten euskal elkargoa
- › LKS
- › Ekin
- › Athletic Club Fundazioa
- › Real Sociedad Fundazioa

Eta hauekin batera ere, badaude norbanako babesleak ere, bakoitzak aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.

BOLUNTARIOAK

DENBORA ESKAINTZEN DUTEN BOLUNTARIOEN SAREA

Norbanako boluntarioek, bere denbora eskainiz -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez, elkarteen ekintzetan denbora eskainiz-, edota bestelako edozer emanaz -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar- hartzen dute parte elkartean.

Boluntario izateko aukera dute: norbanakoek.

EKARPEN EKONOMIKOA EGITEN DUTEN BOLUNTARIOEN SAREA

Bizipozan norbanako boluntario sare bat dago, bakoitzak nahi duen neurriko aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:

<https://bizipoza.eus/nor-gara/>

<https://bizipoza.eus/bizipoztu/>

05. BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK ETA 2022 URTEAN AURRERA ERAMANDAKO EKIMENAK

1. ELKARTEEN ETA HAIK LANTZEN DUTEN ERREALITATEA GIZARTERATZEKO EKIMENAK

01. Jarduerak

MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2 Kantu eta bideoklipak proiektuaren zabalpena

PROIEKTUAREN INFORMAZIOA



2020ean sortu genuen **MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 1** proiektua, 11 elkarterekin ekoiztutako lana , 34 euskal sortzaileekin elkarlanean egina. 12 abestiz eta 11 bideoklipez osatutako CD-DVD-Liburuxka sortu genuen.

2021ean sortu genuen **MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2** proiektua. 12 elkarteekin ekoiztutako lana , euskal sortzaileekin elkarlanean sortua: 12 letragilek kantuen letrak sortu zituzten , 10 abeslari eta 4 musika taldek abestiak abestu, eta Xabi Zabala konpositoreak sortu zituen kantu guztiak. Guztira 11 abesti eta 11 bideoklip sortu genituen eta guztiak CD-DVD-Liburuxka formatoan bildu genituen.

Hauek izan ziren 2020 eta 2021 urteko proiektuetan parte hartu zuten elkarteak eta euskal sortzaileak

2020 URTEA

ELKARTEA	IDAZLE/BERTSOLARIA	ABESLARIA
ASPANIF	Unai Iturriaga	Josu Zabala eta Iñaki Garitaonandia "Gari"
GEHITU	Bihotz Gorospe	Yogurinha Borova
ASPANOGI-ASPANO-VAS	Amaia Agirre	Eñaut Elorrieta
BIHOTZEZ	Nerea Ibartzabal	Xabi Solano
HIRU HAMABI	Julio Soto	Enrique Villarreal "El Drogas" eta Oihana Fernandez "Afu"
OPORRAK BAKEAN	Aner Euzkitze	Aitor Gorosabel eta Miren Narbaiza
INTEGRAZIO BATZORDEA	Amets eta Maddalen Arzallus	Amets eta Maddalen Arzallus
BIAK BAT	Leire Bilbao	Anabel Arraiza eta Mikel Urdangarin
KALE DOR KAYIKO	Arkaitz Estiballes	Itziar Ituño
ULERTUZ	Miren Amuriza	Aiora Renteria
BIZIPOZA	Igor Elortza	Pirritx, Porrotx, Marimotots eta diskoan parte hartzen duten abeslari guztiak
JOXE MARI AUZMENDI-REN KANTUA	Joxe Mari Auzmendi	Andoni Tolosa "Morau" eta Maite Larburu

2021 URTEA

ELKARTEA	LETRAGILEA	ABESLARIA
ADEMG	Jon Maia	Anari
CHERNOBILEN LAGUNAK	Oihane Perea Perez De Mendiola	Jurgi Ekiza
EH-ko DOWN SINDROMEAREN FUNDAZIOA	Andoni Egaña	Motxila 21 Taldea
BEROA	Alaia eta Jon Martin Etxebeste	Alaia Eta Jon Martin
ETIOPIA UTOPIA	Ane Labaka Mayoz	Demode Quartet
GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUA + MINDARA	Maialen Lujanbio	Amak
GURE NAHIA + GURE SEÑEAK	Onintza Enbeita Maguregi	Alex Sardui
SAN FILIPPO	Gotzon Barandiaran Arteaga	Francis (Doctor Deseo)
SUPER HACHE	Jon Garmendia (Txuria)	Maren
GUZTIOK	Sustrai Colina	Petti-Estitxu





2022 URTEA. PROIEKTUAREN ZABALPENA

Proiektuaren aurkezpen ekitaldia

2022eko Urtarrilaren 29an MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 2 proiektuaren aurkezpena burutu genuen eta bertan Bizipozako komunitate guztia bildu zen. (Babesleak, elkarteak, bazkideak, boluntarioak, sortzaileak).

Aurkezpen ekitaldiaren bideoa ikusgai hemen :



Urtarrilaren 29tik aurrera zabalkunde zabala izan da.



SARE SOZIALETAN ETA WEBGUNEAN ZABALPENA

Sare sozialetan (facebook, instagram, twitter, youtube eta spotify) eta webgunean astero, urtarrilaren 29tik aurrera bi bideoklip aurkeztu dira.

KOMUNIKABIDEETAN ZABALPENA

Komunikabide desberdinetan oihartzun nabaria izan du proiektuak:

Prentsa idatzia: 18 hedabide desberdinetan izan gara.

- › Eta Kितto!, Noticias de Gipuzkoa, Guraso.eus, Diario Vasco, Guaixe, Berria (Mantangorri, Bizigiro, Onintza Enbeitaren Iritzi artikuluan), Naiz, Kultur Sharea, Gara, Kronika, El Correo, Gaztezulo, Baleike, Aiurri, Txintxarri, Uztarria, Anboto Kultura, Aizu!

Telebista: 3 telebista desberdinetan izan gara.

- › EITB (informatiboak eta Biba Zuek!), Goiena Telebista, Hamaika Telebista.

Irratia: 8 Irrati desberdinetan izan gara.

- › Segura, Xorroxin, Arrosa, Cadena Ser, Euskal Irratiak, Arrate , Oiartzun

Blogak: bazkide eta babesleen 8 blogetan izan gara.

- › Kutxa Gipuzkoa Solidarioa, Hik Hasi, AEK, Ikastolen Federazioa, Fagor, Laboral, Oinherri.
- ›

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAI GUZTIAK IKUSGAI: <https://bizipoza.eus/prentsa/>

CD-DVD-LIBURUXKAREN SALMENTA

- › CD – DVD – Liburuxka, Elkar denda fisikoetan eta online egon da salgai urte osoan zehar. Bestetik, Noticias de Gipuzkoa, Berriak eta Garak ere promozio bereziak egin dituzte salmenta indartzeko.

www.bizipoza.eus orrialdean ere salgai dago CD-DVD - Liburuxka.

AURKEZPEN EKITALDIA DERION GURE SEÑEAK ELKARTEAK ANTOLATUTA



Gure Señeak elkarteak aurkezpen ekitaldia egin zuen Derion. Honetarako, herriko musikariak eta korua elkartu ziren eta beraien kantua herriko eragileen artean abestu eta musikatu zuten.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA:

Webgunean informazio eta bideoklip guztiak ikusgai:

- › <https://bizipoza.eus/kantu-eta-bideoklipak-2/> orrialdean aurkitu daitezke kantu eta bideoklip guztiak.
- › <https://bizipoza.eus/berriak/> orrialdean aurkitu daitezke komunikabideetako argitalpen guztiak.
- › EITBko “Biba Zuek” programak astero aurkeztu du bideoklip bat eta programan izan dira astero elkarteko lagunak eta sortzaileak ere. Programa guztiak <https://bizipoza.eus/biba-zuek/> orrialdean ikusi daitezke.

MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 3 KANTU ETA BIDEOKLIPAK PROIEKTUAREN SORKUNTZA

PROIEKTUAREN INFORMAZIOA



- › MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT-3 kantu eta bideoklipak, BIZIPOZA elkarte osatzen duten 11 elkarterekin ekoiztutako lana da, euskal sortzaileekin elkarlanean sortua: Euskal Herriko 13 idazle eta bertsolari, eta Euskal Herriko 22 abeslari. Bertan 12 abestiz eta bideoklipekin osatutako CDa eta DVDa aurkituko dituzue. Honetaz gain, liburuxka formatuan eta elkartearen ilustrazio banarekin, elkarte bakoitzaren deskribapena, kantu eta elkarte bakoitzaren aurkezpen testua, abestiaren letra eta sortzaileen eta elkarteetako kideen talde argazkiak ere topatuko dituzue. Elkartearen eta euskal kultur sortzaileen arteko elkarlana da MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT-3 kantu eta bideoklipen proiektuaren oinarri nagusia. 11 elkarte egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abestiak eta bideoklipak dira, elkarte bakoitzaren mezua musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko helburu dutenak.
- › Liburuxka formatuan, elkartearen ilustrazio bana, bakoitzaren deskribapena, ipuintxoa eta abestiaren letra topatuko ditugu.

PARTEHARTZAILEAK : ELKARTEAK, EUSKAL SORTZAILEAK ETA BABESLEAK.

› Hauek dira 2022 urteko MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 3 proiektuan parte hartu duten **elkartek eta euskal sortzaileak**:

ELKARTEA	LETRAGILEA	ABESLARIA
1.-AGIPASE	AINHOA AGIRREAZALDEGI	GOIAZEN JOANES ECHEVESTE, DÁNAE RIAÑO, MARIA REDONDO eta ANDER LACALLE
2.-ARNASA	XABAT GALLETEBEITA	OLATZ SALVADOR JON BASAGUREN
3.-NAIZEN	EKAITZ GOIKOETXEA	KAI NAKAI EN TOL SARMIENTO IÑIGO
4.-DRAVET	BEÑAT GAZTELUMENDI	GARTXOT NEREA URBIZU
5.-PAUSOKA	ELI PAGOLA	PATXUKO NICE (Sergio)
6.-UME ALAIA	XABIER SUKIA	GOZATEGI IÑIGO GOZATEGI ASIER ESTI MARKEZ
7.-NDANK NDANK	ODEI BARROSO	LA BASU (ELENA) NIKOLAS
8.-NUALA	OIHANA ARANA	BULEGO TOMAS
9.-JUNEREN HEGOAK	MIREN ARTETXE	ETXE (Iñaki) INES OSINAGA
10.-IZAN INURRI	OIHANA IGUARAN	IDOIA ASURMENDI
11.-MAREA URDINA	Elkartea	Elkartea
12.- BIZIPOZA AUZOLAN	Sarrerako testua LEIRE BILBAOk egingo du.	Abeslari guztiak

› Hauek dira 2022 urteko MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT 3 proiektuan parte hartu duten **babesleak**: Danobatgroup, Laboral Kutxa, Fagor, Irizar, Kutxa Fundazioa.

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA

<https://bizipoza.eus/kantu-eta-bideoklipak-2023/> orrialdean kantu eta bideoklip guztiak.

IRRIEN LAGUNAK-ek IRRIA ALDIZKARIA-an SORTUTAKO IPUINAK

INFORMAZIOA

2022 urtean, 10 elkarteren ipuinak argitaratu dira Irria aldizkarian. Banaiz Bagara, Aspanogi, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, Pausoka, Ulertuz, Chernobilan Lagunak, Oporrak Bakean, Ume Alaia , Iñurri eta SuperH elkarteen ipuinak hain zuzen ere.

Bizipoza elkarteak elkarte bakoitzari ipuina PDF formatoan helarazten dio eta Irria aldizkariko 4 ale korreo bidez helarazten dizkio.

Pausoka elkartearen ipuina adibide:



BIZIPOZAREN WEBGUNEAN IPUIN GUZTIAK IKUSGAI:

<https://bizipoza.eus/ipuinak/> orrialdean aurkitu daitezke ipuin guztiak.

LABORAL KUTXAren EGUTEGIA

Laboral Kutxa-k urtero egutegiak sortzen ditu eta 2022 urtean Bizipoza elkarteari eman diote aukera egutegian parte hartzeko. Modu honetan, maiatza hilabetea Bizipoza elkartearen argazkia izan da nagusi.



DURANGOKO AZOKA



2022 urteko Durangoko azokan presente izango gara presentzialki eta online ere. 4 elkarteren materiala izango da salgai eta Bizipozaren CD-DVDa eta "Munduak Guztiontzat beharko luke, baina ez da" liburua ere. Aurten lehen aldiz, Bizipozaren poltsak banatu ditugu azokan. Bizipoza auzolan kantua ere Durangoko azokako spotify-eko playlist-ean presente dago.

WEBGUNEAN INFORMAZIOA : <https://bizipoza.eus/durangoko-azoka/>

02. GIZARTE ERAGILE DESBERDINEKIN ELKARLANA

2022 URTEKO KORRIKA-n PARTE HARTU DUGU

Elkarrekin euskararen alde aritu ginen korrika Bizipozako elkarteak.

Bilboko Uribarri auzoko eragileekin batera kilometroa egin genuen korrika.



LANKik ANTOLATUTAKO “KOOPERATIBAK ETA GIZARTE ERALDAKETA” MODULUAN PARTE HARTU DUGU

LANKI ikertegian kooperatibismoan sakontzeko kurtsoa antolatzen da urtero, kooperatiba ezberdinetan dauden bazkideei zuzendua (aurten 16 kooperatibako kideak izan dira bertan: Fagor, Ulma, Maier, Lagun Aro, Eika...).

Zehazki, “kooperatibak eta gizarte eraldaketa” izeneko moduluan parte hartu du Bizipozak 2022 urteko martxoaren 25ean. Modulu horretan Mondragoneko kooperatibak gizartean egin beharreko ekarpenen inguruan hausnartzen da: zertan ari diren asmatzen, zertan ez dauden asmatzen, aurrera begira zein norabidetan eman daitezkeen pauso berriak...

Beste zenbait eragilarekin bateran, Bizipoza proiektua zer den eta zer nolako elkartek parte hartzen duten partekatu genuen bertan, eta kooperatibek zein ekarpen egin dezaketen ere partekatu genuen elkarrekin.

Hemen bideoa:



CCISE KONGRESUAN PARTE HARTU DU PEIO MANTEROLAK

“Hautzaro kalteberaren eskubideak SARS-cov-2aren pandemian zehar: Bizipoza elkartearen kasua.” Gai hori jorratu zuen Maiatzaren 6an ospatutako kongresuan Peio Manterolak.



EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA. “BATUZ ALDATU” HIZKUNTZA-POLITIKETAN ERAGITEKO ADOSTASUN SOZIALEN EKIMENA.

Hizkuntza-politiketan adostasun sozialetik politikorako bidea jorratuko duen [#BatuzAldatu](#) lko Talde Eragilea aurkeztu zen azaroan. Gu ere bagara bertako kide alor desberdinetako beste hainbat entitaterekin batera.



REPERKUSION FEMINISTA BATUKADA BILBON

Azaroan Reperkusion feminista batukadak Bilbon egindako saioaren helburua Bizipoza gizarteratzea izan zen.



02. ELKARTEEN ARTEKO EZAGUTZA ETA KOHESIOA

VI. JARDUNALDIA : ZAINTZA SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOAZ. ELKARREKIN HAUSNARTZEN, PARTEKATZEN ETA ERALDATZEN.”

2022 urtean Bizipozako VI.Jardunaldia burutu dugu: “ ZAINTZA SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOAZ: ELKARREKIN HAUSNARTZEN, PARTEKATZEN ETA ERALDATZEN”



BIZIPOZA

6. JARDUNALDIA

ZAINTZA SISTEMA PUBLIKO-KOMUNITARIOAZ: ELKARREKIN HAUSNARTZEN, PARTEKATZEN ETA ERALDATZEN

2022KO AZAROAREN 26AN, 10:00-13:00. SUTEGI ARETOA, USURBIL

IZENA EMAN HEMEN: www.labur.eus/bizipozajardunaldia

EGITARAUA

1. "MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA" LIBURUAREN AURKEZPENA
Peio Manterola Pavo eta Amagoia Mujika Telleria
2. GAUR EGUNGO MARKOAREN KOKAPENA
Felix Arrieta Frutos
3. BIZIPOZAKO ELKARTEEN BIZIPENAK
Gure Señeak elkarte, Arrieta elkarte eta Pausoka elkarte
4. ONDORIOAK
5. SISTEMA PUBLIKO KOMUNITARIOA. MAHAI BUELTAN TERTULIA
Zelai Nikolas Ezkurdia eta Felix Arrieta Frutos
6. ZER DAGO GURE ESKU? MIKRO IREKIA
7. ONDORIOAK

ATSEDEALDIA

USURBILGO

hh

DANOBATGROUP

Irizar

kutxa

2022ko azaroaren 26an Usurbilgo Sutegi aretoan ospatu zen, urtero bezala, Bizipozaren formakuntza-jardunaldia.

Zaintza sistema publiko-komunitarioaz: elkarrekin hausnartzen, partekatzen eta eraldatzen izenburupean, Peio Manterola Pavoren Master Bukaerako Lanean oinarritutako *Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da* liburuaren aurkezpena egin zuen jardunaldiak. Amagoia Mujika Telleriak lan akademikoa liburu irakurterraz bihurtu du eta jardunaldiari hasiera eman zioten liburuaren aurkezpena eginez. Aurretik, Bizipozako koordinatzaile Leire Elizegi Belokik eta Usurbilgo alkateorde Beñat Larrañagak, eskertza eta ongietorria eman zizkieten han elkartutako guztiei.

Jarraian, Deustuko Unibertsitateko irakasle den Felix Arrieta Frutosek gaur egungo markoaren sistemaren kokapena egin zuen, gizartea, elkartearen egoera eta funtzioa eta abarri buruz mintzatuz. Ondoren, Bizipozako elkartearen bizipenak jasotzeko, Gure Señeak elkartearen Luisma Landaluzek eta Pausoka elkartearen Amaia Irazustak hitza hartu zuten. Ordu erdiko atsedenaldea eta gero, sistema publiko-komunitarioaz solastu ziren Zelai Nikolas Ezkurdia eta Felix Arrieta Frutos. Bukatzeko, mikro-irekian, bertaratutako guztiek bere ekarpena egin zuten Joxe Mari Agirretxeren laguntzarekin.



JARDUNALDIA KOMUNIKABIDEETAN

<https://bizipoza.eus/prentsa/>

BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA ETA BIDEOAK

<https://bizipoza.eus/jardunaldiak/>

“MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA” LIBURUAREN AURKEZPENA

INFORMAZIOA

Sinopsia:

Askotan lasai joan gaitezke aurrera edo gora begira, estropezu egiteko arriskuari erreparatu ere egin gabe. Hain goaz lasai, ez garela konturatzen gure segurtasuna ondo tenkatutako sare bati zor diogula. Bizipoza osatzen duten elkarteentzat, berriz, lurra ez da beti samurra, beraientzako sarea gaixotasunek edota beharrek urratuta dagoelako. Baina, oso garbi daukate beren haurrek ez dutela etengabe lurrera begira joan behar, lasai begiratu behar dutela aurrera edo gora. Horregatik, etengabe sarea josten eta josten aritzen dira, orratzak hatzak hamaika aldiz ziztatu arren. Neketsua da, baina beharrezkoa. Horregatik gailentzen zaie bizitzeko poza.

Premiatik sortutako elkarteak dira, “pribatuak” omen, irabazi asmorik gabekoak eta inizatiba solidariotik jasioak. Gizarte zerbitzu publikoek betetzen ez dituzten beharrak samurtzeko sortuak dira. Legeak garbi esaten du marjinazioari eta eskusioari ez zaiola irtenbiderik topatu orain artean eta desparekotasun sozial horren aurrean ezinbestekoa da gizarte-ekintzako eragileek egiten duten lana.

Munduak guztiontzat beharko luke, baina ez da. Lan honetan zergatik ez den ulertu nahia dago; nori dagokio guztiontzat den mundua eraikitzea? Zer falta zaio munduari guztiontzat izateko? Nork eta nola egiten du lan zulo horiek josteko? Nolako hariz?

Galderetatik abiatu eta galderekin amaitzen den gogoetatxoa da. Hutsuneak konpontzen hasteko lehen urratsa hutsuneak bistaratzea delako.

Liburuaren idazlea:

Amagoia Mujika Telleria (Usurbil, 1979). Kazetaria, editorea eta iritzi zutabegilea. Hamar urte baino gehiago daramatza Bizipozako elkartearen ipuinen gidoiak egiten eta gertutik ezagutu du elkarte horien errealitatea. *Sentitu, pentsatu, ekin* liburuaren egilea 2013. urtean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 25. urteurrenaren harira. Peio Manterolaren *Euskal Herriko haurren eskubide-egoera gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik* izeneko ikerketa lanetik abiatuta ondu du liburu hau.

“Bizipoza egitasmoa: Euskal Herriko haurren eskubide-egoera gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik” master amaierako laneko egilea:

Peio Manterola Pavo (Andoain, 1997). Lehen Hezkuntza gradua egin zuen Mondragon Unibertsitatean. Ondoren, Gizarte eta Hezkuntza Eremuen Ikerketa Masterra EHU/ UPVn. Horretan ari zela hurbildu zen Bizipoza elkartera. Hala, elkartearekin zein unibertsitatearekin lankidetzan, *Bizipoza egitasmoa: Euskal Herriko haurren eskubide-egoera gizarte eta hezkuntza ikuspegi batetik* izeneko Master Amaierako Lana aurkeztu zuen 2020an. Hari horri tiraka, urtebete geroago *Covid-19a Bizipozan: bizipenak gogoetak eta ikaskuntzak* lana.

AURKEZPENA

Azaroak 14ean prentsaurrean aurkeztu zen liburua eta azaroak 26ko jardunaldian ere.



Prentsaurrekoaren informazioarekin batera, komunikabide desberdinetan elkarriketak burutu dira liburua oinarri hartuta.

LIBURUAREN AURKEZPENA KOMUNIKABIDEETAN

Elkarriketa guztiak ikusgai eta entzungai: <https://bizipoza.eus/prentsa/>

03. KOMUNIKAZIO OROKORRA

WEBGUNEAK

<https://bizipoza.eus/>

2019an sortutako Bizipozaren marketing digital plana aurrera eramaten ari gara Sorland komunikazio agentziarekin batera, eta 2022 urtean webguneko atalen berrantolaketa burutu dugu.

SARE SOZIALAK

Facebook, Twitter, Instagram, Youtube eta Spotify.

2022 urtean sare sozialetan presentzia indartuz goaz, Bizipozaren orria atsegin duen komunitatea haundituz. Asteroko lana izaten ari da sare sozialak elikatzearena. (Facebook, twitter, Instagram, Youtube eta Spotify). Sare sozialetan, Bizipozak aurrera eramaten dituen ekimenak gizarteratzeaz gain, Bizipozako elkarten ekimenak ere zabaltzen dira. Elkarrekin ospatzen dituzten nazioarteko egunei ere indarra ematen diegu sare sozialen bidez, elkarre hori, gai hori, balore horiek indartuz.

Adibide moduan, Nazioarteko egunen berri emateko sortutako publikazio batzuk ondorengoak izan dira 2022 urtean:



KOMUNIKABIDEAK

Pixkanaka, komunikabideen sarea ere indartuz goaz, urtean zehar komunikabide desberdinekin harremanak landuaz. Kantu eta bideoklipen proiektuarekin adibidez, lanketa handia egin da komunikabide desberdinekin eta lanketa hori urte osoan zehar nabaritu da, komunikabideekin elkarlana urte osoan zehar mantendu eta indartu baita.

Bizipozaren webgunean aurkitu daitezke komunikabideetako lotura guztiak, ondorengo atalean: <https://bizipoza.eus/prentsa/>.

Eitb-ko BIBA ZUEK saioan asteroko jarraipena egin diote 2022 urtean ere kantu eta bideoklipen proiektuari, beraz, webgunean ere atal berezi bat sortu dugu saio guzti hauek jasotzen dituen.

<https://bizipoza.eus/biba-zuek/> Nahiz eta BIBA ZUEK saiorako atal berezia sortu, telebista saio guztiak jasotzen dituen atala ere indarrean dugu, eta bertan ikusi daitezke beste hainbat telebista saio.

04. BOLUNTARIO SAREA INDARTZEKO EKIMENAK

URRETXINDORRA IKASTOLAN SAIOA.


Otsailean Bilboko Urretxindorra ikastolako gazteekin Bizipozaren inguruko lan-saio bat burutu genuen. Horrekin batera, gazteek elkartasun merkatua antolatu zuten eta bertan bildutako dirua Bizipozari eman zioten.



DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN SAIOA

Maiatzean, Deustuko Unibertsitatea-n egon ginen Gizarte lana eta Gizarte hezkuntza gradu bikoitzeko ikasleekin batera Bizipozaz eta bizipozez hitz egiten.

5 urteko etengabeko ikaskuntzaren ondoren, gure solasaldiarekin batera eman zioten bukaera ikasturteari.



HUHEZI –ko GAZTEEKIN SAIOA

Urrian, HUHEZI unibertsitateko gazteekin bildu ginen eta Bizipoza, elkartasuna eta boluntarioatzaren inguruko saioa egin genuen elkarrekin.



BIZIPOZTU ZAITEZ, IZAN BAZKIDE IZAN BOLUNTARIO KANPAINA ETA BOLUNTARIOTZA KM0

SARE SOZIALEN BIDEZ AUERRERA ERAMANDAKO KANPAINA

Azaroan, “Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario” boluntarioak erakartzeko kanpaina berria abiarazi genuen. Elkarte bakoitzak boluntariotza lanak burutuko dituzten lagunak zein lan konkretuetan aritzeko beharra duten azaldu ziguten eta horren arabera kanpaina egin genuen. Modu honetan, boluntariotza lanak burutzeko izena eman zuten boluntarioak zuzenean elkarte zehatz batekin jarri genituen harremanetan.

Aurten elkarteetako boluntarioak beraiek izan dira protagonista kanpaina zehar eta beraiekin batera aritu dira Aitziber Garmendia aktorea eta Gaizka Garitano futbol entrenatzailea.

TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0

Bestetik, Boluntariotza KM0 gida didaktikoa sortzeko bidean lanean aritu gara 2022 urtean ere.

Herrian herriko eragile diferenteak elkartu eta ekimen amankomunak sortu ahal izateko tresna sortzera goaz TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0-ren bidez. Tokian tokiko Elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eragileen arteko sareak indartu eta hauek sortuta ekimenak burutzeko baliabideak emango ditu TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 tresnak.

2022 urtean Lasarte-Orian eta Uribarri burutu ditugu KM0 ekimen praktikoak. Lasarte-Oriako kasuan, “Lasarte-Oriako Euskararen Maratoia” egitasmoaren baitan burutu zen ekimena. Uribarriko kasuan aldiz, Bizipozaren pisua bertan dagoela baliatuta, auzoko eragileak elkartu eta jaia antolatu zen.



BIZIPOZAREN WEBGUNEAN INFORMAZIOA

Kanpaina hemen ikusi daiteke: <https://bizipoza.eus/bizipoztu/>

05. BILBOKO EGOITZA ETA “BIZIPOZA ESKOLA” GIDA DIDAKTIKOEN PROIEKTUA

BILBOKO PISUA

2020 urtean zehar Bilboko egoitzaren aurrera begirako erabileraren inguruko proiektua zehazten hasi ginen eta Uribarri auzoko eragileekin harremanak egiten hasi ginen.

urtean Bizipozak hainbat gida didaktiko sortzeko bideari ekin dio eta lan hau aurrera eramateko, Bilboko egoitza hau izango da gida hauek sortuko dituen pertsonak lan egingo duen tokia. 2022 urtean proiektuarekin jarraitu dugu.

AZAROAN BIZIPOZA JAIA URIBARRI AUZOAN

Jaialdi honen helburu nagusiak BIZIPOZA gizarteratzea eta ELKARTEEN lana gizarteratzea dira eta jaiaren oinarriak AUZOLANA, ELKARTASUNA, EUSKARA ETA BIZIPOZA baloreak izaten dira.

Azaroak 6ean Bilboko Uribarri auzoan ospatu zen jaia igande goizeko egitarauarekin. Uribarri auzoko gizarte eragile guztien artean osatutako egitaraua eraman zen aurrera eta Bizipozako elkarteak ere presente izan ziren.



“BIZIPOZA ESKOLA” GIDA DIDAKTIKOAK

Bizipoza elkartetik “Elkartasunean hezi eta bizi: Bizipoza gida” eta “Tokian tokiko boluntariotza: Bizipoza KM0” tresna sortzera eta zabaltzera goaz, hezkuntza formala, hezkuntza ez formala eta herrigintzan inklusioa eta elkartasunaren gaiak landu ahal izateko, gizarteko errealitate desberdinen inguruko sensibilizazioa indartzeko eta guztiontzat beharko lukeen mundua eraikitzeko aurrerapausoak emateko.

1. Hezkuntza formal eta ez formalean garatzeko ELKARTASUNEAN HEZI ETA BIZI: BIZIPOZA GIDA sortuko dugu.
2. Herrigintzan lantzeko “TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0” boluntariotza ekimen berritzailea sortuko dugu. Tokian tokiko boluntariotza : Bizipoza KM0 tresna hau ere aberastuko du “Bizipoza erein, hazi eta loratuz :Gida didaktikoak”.

HEZKUNTZA FORMALA:

Haur hezkuntzatik unibertsitaterainoko eremuetarako unitate didaktikoak sortuko dira.

HEZKUNTZA EZ-FORMALA:

- › Aisialdia, euskara eta kulturaren eremuetarako unitate didaktikoak sortuko ditugu.
- › Aisialdia: Ludotekak, gazteklubak, kuadrilategi, faktoria, udalekuak.
- › Euskara: Topagunea, Uema...
- › Kultura: Bertso eskolak, dantza eskolak, musika eskolak, antzerki eskolak eta kantu eskolak.

HERRIGINTZA

Herrian herriko eragile diferenteak elkartu eta ekimen amankomunak sortu ahal izateko tresna sortzera goaz TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0-ren bidez. Tokian tokiko Elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eragileen arteko sareak indartu eta hauek sortuta ekimenak burutzeko baliabideak emango ditu TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 tresnak.

TOKIAN TOKIKO BOLUNTARIOTZA: BIZIPOZA KM0 izango da Bizipozaren komunitateko pertsonen boluntariotza sustatzeko bide berritzailea, boluntario bakoitzari bide emango diona bere herrian egitasmoak bideratzeko herri bakoitzean elkartasuna, inklusioa, hezkuntza eta kultur eremuetan lanean dabiltzan pertsonen arteko sareak sortuz, indartuz eta baliatuz. Sare honek erakunde publikoekin ere elkarlana bideratuko du, horrela, komunitate osoaren elkarlana indartuz.

2021. urteko urrian hasiera eman zitzaion 3 urte eta erdiko iraupena aurreikusten zaion proiektu honi. Bizipozaren balioak eta Bizipoza osatzen duten elkarteek hezkuntza formalean, ez-formalean eta KM-0 boluntariotzan lantzeko helburuarekin. Proiektuarekin batera, Bilboko Bizipozaren egoitza ere martxan jarri zen, Matiko kaleko 21, zenbakian kokatua.

Giden diseinua eta funtzionaltasuna aberastu nahian, "jasoketa faseen" prozedura asmatu da 2022 urtean, non gidak sortu aurretik eta bukatzean, gaian aditu eta aritu direnekin elkarriketak egin diren.

HEZKUNTZA FORMALA

2021eko urritik 2022ko ekainera bitartean, Hezkuntza formaleko giden eta jardueren sekuentziazioaren diseinuari ekin zitzaion.

Hona hemen hezkuntza-formaleko jasoketa faseetako aditu eta arituak:

Gai eta jarduera desberdinetan, Bizipozaren materiala (kantu eta bideoklipak, komikiak mikrodokumentalak...) eta elkarte bakoitzarena ere jasotzen da gidan, halaber, material berriak ere sortzen direlarik. Gidak irakasleentzako materiala diren arren, jasotzaileak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Gela egonkorra, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Goi-mailako hezkuntzako (16 urtetik gorako) ikasleak dira.

2022ko ekainean, giden funtzionaltasuna praktirara eramateko asmoz, 2023ko urtarriletik maiatzera bitartean froga-pilotoak egitea aurrakusi da Euskal Herri osoko izaera eta tamaina ezberdineko ikastetxeetan. Horretarako, 2022ko urritik abendura, parte hartuko duten ikastetxeetan aurkezpen presentzial eta pertsonalizatuak egin dira.

Hurrengoak dira Hezkuntza formaleko froga pilotoetan parte hartuko duten ikastetxeak:

Gipuzkoan:

- › Amassorrain ikastola
- › Magale ikastetxea
- › Aratz ikastola
- › Lapurdi:
- › Urruñako ikastola

Bizkaian:

- › Urretxindorra ikastola
- › Uribarri eskola
- › Leioako EHUko Hezkuntza fakultatea

Araba:

- › Lope de Larrea ikastola

Nafarroa:

- › Amaiurko eskola txikia
- › Baztango eskoletako tailerrak

Materialaren formatuari dagokionez, behin-behineko Google Sites baten bidez ekin zaie froga-pilotoei. Haatik, Ikaselarrekin web-orrialde bat sortzeko elkarlanean gabiltza.



BIZIPOZA